ASTEKARIA - 2008ko irailaren 26an - XII. urtea - Usurbil, 337. zenbakia

# Noaua!!

www.noaua.com



Landa-eremua eta kaxkoa elkartzeko garraio zerbitzu berria



## 252 korrikalari Lehen Baxurde Krossean


SEKAÑA
sekaña ERRETEGIA
ondo pasa San Praixkuak!
Aginaga auzoa • 20170 AGINAGA • ✆ 943 362 773


Eiza
denda
Ondo pasa
SAN PRAIXKUAK!
Erribera 8, Aginaga
943 36 12 06


Petronor
Ondo pasa San Praixkuak!
GUREGAS

## Albistea iruditan !!

# Bizikleta nagusi Autorik Gabeko Egunean

Autoak aparkatuta utzi eta txirrindulariak eta oinezkoak nagusi izan ziren irailaren 22an, Autorik Gabeko Egunean.

Herri guneko kaleak trafikoarentzat ixtearekin batera, Udarregi ikastolako ikasleek bizikletak hartu eta herri inguruan ibilaldia osatu zuten aurreko astelehenean.

Arratsaldean berriz, guraso eta ikasleen artean ere, jende asko bildu zen Askatasuna plazan, txokolate dastatzean. Beste hainbeste gertatu zen, kiroldegi aurrean burutu zen opari desberdinen zozketan ere. Frontoian, aldiz, puzgarriak jarri ziren, txikien gozamenerako.



UDARREGIKO IKASLEAK BIZIKLETAN IBILI ZIREN HERRIAN BARRENA.

## Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN ______ 6. OR.

EINEAN GURASO ESKOLAREN ESKAINTZA ______ 10. OR.

PANPAKO LANDAREAREN ARRISKUA ______ 12. OR.

IGANDEAN, ENDIKA ABRIL TXAPELKETA ______ 13. OR.

Usurbilgo Udala

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza











JOXE PIÑAS

# Bidaiariak eta lapurrak

1999. abuztuan Konakrytik atera zen 747 Boeing hegazkina Bruselako aireportuan lurrartu zen. Gurpilak sartzen diren konpartimentuan mantentze lanetarako langile batek 14 eta 15 urteko gazte afrikarren gorpuak aurkitu zituen. Fode Toure eta Alacine Keita izena zuten.

Gurutzaldi abiaduran 747 Boeing batek 11.000 metroetan hegan egiten du, eta altuera horretan kanpoko tenperatura 50 gradu zero azpitik jaisten da.

Aireportuko langileak Foderen kamisetaren poltsikoan orri bat tolestuta aurkitu zuen, horrela zioen: “Ikusten baduzue gure bizitza arriskuan jartzen dugula eta emateko prest gaudela, Afrikan denok sufritzen dugulako da. Afrikan gerra eta pobreziarekin amaitzeko behar zaituztegulako da ere. Guk ikasi nahi dugu eta zuen laguntza eskatzen dizuegu (...) Bukatzeko, karta hau idazteak erakusten duen ausardiagatik barkamena eskatu nahi dizuegu. Baina ez ahaztu zuengana jo behar dugula zuek baitzarete Afrikaren ahultasunaren erantzuleak”.

Harrigarria da bi gazte haien ausardia, bai. Bazekiten aukera gutxiko bidaia zela, itxaropen gutxiko bidaia... bazekiten eta guk jakitea nahi zuten. Horixe lortu zuten testamentu horretan beraien heriotzen erantzuleak nortzuk diren idatzita azaldu zigutenean.

Pasa den astean Somaliarantz Boeing bat abiatu zen, honek 727 zenbakia zuen eta beste bi hegazkinekin batera Espainiako aireportu batetik atera zen. Hegazkin hauetan, guztira, Espainiako ejertzitoko laurogeita hamar militar doaz eta Espainiako defentsa ministroaren esanetan, itsas lapurretaren kontra borrokatzeko eta “Nazio interesen defentsan” Afrikara joan dira. Alegia, Espainiako 16 arrantzuntzi babestera… Hau bai faltsukeria: Afrikara espoliatzera joatea eta lapurreten kontra dabiltzala esatea. Eta dena esaterakoan: hamasei atunketari horietatik euskaldunak badira ere. Ikusteko modukoa!

Nongoa da jaten dugun atuna? Nork harrapatzen du? Norentzat dira etekin ekonomikoak? Nor da lapurretan aritzen dena militarren laguntzarekin? Ez al zaio horri inperialismoa deitzen? Noiztik baliatzen dira euskaldunak Espainiaren politika inperialistaz? Euskaldun arrantzuntziko nagusiek ez dute zalantza eduki krisi honetan Espainia eta Frantziako armadaren partehartzea eskatzerakoan, horiek al dira arrantzale euskaldunen “arte tradizionalak”?

Che Guevarak esan zuen bezala: ez dizuegu laguntza eskatzen, bakean uzteko soilik!

Fode eta Alacine, txartelik gabeko bidaiariak ziren... norbaitek lapurtu zizkien.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - **Joxe Piñas** - Unai Agirre - Idoia Torregarai

# EAE-ANVren aurkako epaia salatzeko manifestazioa

Iragan astean, EAE-ANVren aurkako epaia salatzeko manifestaldi batek herriguneko kaleak zeharkatu zituen, “Salbuespen egoerari stop, Euskal Herriak autodeterminazioa” lemapean.

Bide batez, datozen egunetan izango diren mobilizazioak iragarri ziren; ezohiko osoko bilkura ostegun honetan, irailak 25, itxialdiak urriaren 2 eta 3an edota Bilbon deitua dagoen manifestaldi nazionala urriaren 4an.

EAE-ANVrenaz gain, EHAK eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren eta Askatasunaren aurkako epaiak ere aste berean kaleratu ziren. Guztiak legez kanporatu eta kide bat baino gehiagorentzat espetxeratze agindua eman zuten.




LARUNBATEAN MANIFESTAZIOA EGIN ZEN KAXKOAN.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

ALIPROX
Kale Nagusia 10
✆ 943 361 182
USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

CLIMATA-T
klimatizazio orokorra
✆ 687 858 390
climata_t@yahoo.es

# Landa-eremua eta herri-gunea lotzeko garraio zerbitzu berria jarriko da martxan

## Urriaren 6tik aurrera, furgoneta egokitu batek beteko du zerbitzu berria

**Bereziki mugikortasun arazoak dituzten landa eremuko biztanleei zuzendua dago, urriaren 6an martxan jarriko den garraio zerbitzu berria. Egunean lautan, landa eremuko zonaldeak herri gunearekin lotuko dituen ibilbidea osatuko du furgoneta egokitu batek. Joan etorriko zerbitzua doakoa izango da.**

Landa eremuko adineko herritarren gizarte ongizate beharren inguruan egindako ikerketaren emaitzak aurkeztu zituzten pasa den irailaren 16an Sutegin. Azpimarratutako ondorio nagusietako bat ingurune haietako herritarrek mugitzeko dituzten arazoak izan ziren, garraio gabezia dela eta. Egoera aintzakotzat hartuta, Behemendik eta Udalak elkarlanean bus taxi zerbitzu berria martxan jarriko dute datorren urriaren 6tik aurrera.

Landa eremuan bizi direnek herri gunera joateko eta handik etxera itzultzeko zailtasun gutxiago izango dute. Bus taxi zerbitzu berriak, ohiko autobus baten funtzionamendua izango du. Kalezar, Aginaga, Txokoalde, Urdaiaga, Santuenea, Zubieta eta Txikierdi Kaleberrirekin lotuko dituen ibilbidea osatuko du, egunero eta lau aldiz; goiz, eguerdi, arratsalde eta iluntze partean. Aipatu zonalde horietan guztietan geltoki zehatzak finkatuko dira eta furgoneta bertatik ordu konkretu batzuetan igaroko da.

Mugikortasun arazo handienak dituzten herritarrei zuzendutako zerbitzua da gutxi barru abian jarriko dena. Horregatik, finkatu diren geltokiak urrun gelditzen zaizkion herritarrari edota gune horietara bertaratzeko zailtasunak dituenak, telefono zenbaki bat eskuragarri izango du. Bertara deitu eta furgoneta norbere etxetik bertatik igaroko litzateke, aldez aurretik zehaztutako orduan.



AUZOAK ETA MENDI INGURUAK KAXKORA HURBILTZEKO FUNTZIOA IZANGO DU GARRAIOBIDE BERRIAK. ZERBITZUA DOAKOA IZANGO DA.

### Behar dutenentzat

"Denborarekin zerbitzu eraginkor bat izatea espero dugu", adierazi zuen Xabier Mikel Errekondok zerbitzu berriaren aurkezpen ekitaldian. Landa eremuari zuzendutako garraiobide berria adinekoentzat soilik proposatu nahi zen hasiera batean. Modu horretan funtzionatzen du, antzeko zerbitzua martxan jarri duten gainerako herrietan. Baina gidabaimenik gabeko jendea dagoela kontuan izanda, eta honenbestez, mugikortasun arazoak dituzten adinduez gain, isolamendu egoera berean dauden haur eta gazteak ere badirela ohartuta, urriaren 6tik aurrera erabilgarri izango den zerbitzu berria inon baino jende gehiagorengana ailegatuko da.

Ekimen berri honen eragileek aurkezpen ekitaldian azpimarratu zutenez, modu horretan, landa eremuko herritarrek autonomia mailan irabazi, herri gunera joateko aukera gehiago izanda gizarte harremanak bultzatu eta oro har, haien bizi-kalitatea hobetuko da.

### Geltokiak eta ordutegiak

Datorren asteko NOAUA!-n, geltoki eta ordutegiei buruzko informazio zehatza jasoko duzue.

### Urtebetez martxan, proba gisa

Urtebetez martxan egongo da zerbitzu berria, esperientzia pilotu gisa. Alkate Xabier Mikel Errekondok iragarri zuenez, denbora tarte hori igarota, dagokion balorazioa eginda neurtuko dute bere jarraipena.

Behemendi Landa Garapenerako Elkartearen eta Udalaren arteko elkarlanaren emaitza da garraiobide zerbitzu berria. Udalak furgoneta egokitua jarriko du eta Behemendi Elkartea gidariaren kontratazioaz arduratuko da.

KALEZAR — ALOÑA PULIDO

# Denboraldi berria



Kaixo irakurleok! Jada udara joan da eta hemen gaude berriro NOAUA!ko denboraldi berrian kronikak idazten. Denboraldi berria dela eta, kalezartar eta beste auzoetako jendea animatu nahi dut auzoetako kronikak idaztera, denboraldi berri honi aire berri bat emateko.

Udararen amaierarekin beraz, haur eta gazteak ikastolara eta helduak lanera itzuli behar izaten gara eta honekin batera kirol denboraldiari ere hasiera ematen zaio. Aurtengoan ere, Usurbil Futbol Taldeak eta Usurbilgo Eskubaloi Taldeak ere hasiera emango diote denboraldi berriari. Futbolari dagokionez, aurtengoan lau talde sortu dira Harane futbol zelaian, erregional mailako bi talde (lehen eta bigarren mailan), nesken taldea eta kadete mutilak. Talde hauek jada hasiera eman zioten denboraldiari irailaren 13 eta 14ko asteburuan.

Eskubaloi taldeari dagokionez, oraingoan bost taldek ekingo diote 2008-2009 denboraldiari. Batetik senior mutilak ditugu lehenengo territorial mailan eta bigarren nazional mailara igotzeko asmotan. Bigarrenik jubeniletan mutilen eta nesken taldeak hartuko dute parte. Eta azkenik, kadete mailan ere mutilak eta neskak arituko dira. Jubenil eta kadete mailan ere territorial mailatik "Liga Vascara" igotzea da asmoa eta talde guzti hauek urrian emango diote hasiera denboraldiari.



Ba nire aldetik talde hauek guztiak animatu nahi ditut, ea guztiek denboraldi ona egiten duten eta denboraldi hasieran dituzten nahiak betetzea lortzen duten.

URDAIAGA — NEREA AIZPURUA

# Egin irribarre



Agur bero bat guztiei Usurbilgo txoko honetatik. Uda orain gutxi atzean utzi dugu eta berriz ere hasiera eman diogu kurtso berriari.

Iraila hil gogorra izan ohi da guztientzat… Haurrek dagoeneko opor egunak atzean utziak dituzte eta ekin diote ikasturte berriari. Beste hainbatek Udarregi ikastola atzean utzi eta etapa berri bati hasiera eman diote.

Ikastola, institutua, lanerako buelta, unibertsitateko lehen egunak… Errutinaren seinale nabarmenak ditugu. Atzean utzi ditugu dagoeneko udako egun eguzkitsuak, hondartzako egun pasak, hain gustura jaten ditugun izozkiak, koadrilakoekin iluntzean Txiriko petrilean hartutako garagardoak, festak… Errutinan murgildu arren, eguneroko gauza txikiekin disfrutatzea besterik ez zaigu geratzen… Beraz badakizue, egin irribarre bizitzari; guk irribarre egiten diogun modu berean egingo baitigu irribarre hark guri.

Azkenik San Estebango jai batzordearen izenean, gure besarkadarik beroena bidali nahi genieke Mirotzen senitarteko, koadrilako, lagun eta ezagun guztiei… Hitzak soberan daude… Beti izango zaitugu gogoan.

ATXEGALDE — MªJESUS URBIETA

# Ikas garaia



Udako opor aldia pasa ondoren egunerokotasuna bueltatu dela esango nuke. Gure auzoan jaiak ere izan ditugu eta pasa den urtean bezala, gazteak lanean ikusteko aukera izan dugu. Gogoz aritu dira eta festa politak antolatu dituzte aurten ere. Auzotarrak gustura izan dira eta festetan murgilduta ibili gara bai bertakoak eta baita herritik gerturatutako zenbait ere. Udarari agur esateko modu polita izan zen. Ea aurrerantzean ere gazteak festak antolatzera animatzen diren.

Orain berriz, irailean murgilduta gaudenez ikasturtea hemen dugu eta beste eginkizun batzuk izaten ditugu. Gaztetxoak eta haurrak, hor joaten dira goizean goiz motxilak bizkarrean hartuta Ikastolara. Batzuk pozik joaten dira eta besteak burumakur baina, denborarekin denak ohitzen gara.

Etxebizitza berriak ere badoaz aurrera. Hartu duten altuera eta zabalerarekin hau da hau betekada ikusten dena auzoan! Gerora ohituko bagara ere, epe motzean bertan zegoen zelai ederra faltan botako dugu. Baina horrela dira gauzak eta konformatu egin behar.

*Aurrerantzean, Kalejiran ataleko 8 kronikak txandaka argitaratuko ditugu. Txokoalde eta Santueneko kronikak hurrengo batean bilduko ditugu.*

AGINAGA — ANE MANZISIDOR

# San Praixkuak begi bistan



Hemen naiz, berriro ere, Aginaga aldeko berri emateko asmoz.

Data hauetan, ohikoa den bezala, Aginaga aldean mugimendua da nagusi. Haurrak, gehiengoa bezala, errutinan sartuta dabiltza. San Praixkuak direla eta, dagoeneko azken txanpan dira eskuzko nahiz, palazko pilota partidak. Arratsalde aldean, giro polita sortzen da herriko frontoi inguruan.

Igandean, irailaren 28an, ospatuko da aurtengo pilota txapelketaren finala. Hemendik, guztiak gonbidatu nahi zaituztet partida Hauek ikustera eta pilotariak animatzera!

San Praixkuekin jarraituz, aurten ere, bi asteburu izango ditugu jaietaz gozatzeko. Urriaren 3an emango zaie jaiei hasiera eta asteburu osoa izango dugu aurretik. Aurtengo jaietan, zerbait ezberdina ikusi ahal izango dugu. Iaz, trainerillak izan ziren nobedadea. Aurten, kontzertu mundialaz gozatu ahal izango dugu San Praixku egunean. Mendeku Itxua, Betagarri eta Inser Show talde kataluniarraren eskutik.

Hurrengo egunetan ere saltsa izango da Aginagako



frontoian. Arratsalde partean, Herri arteko herri kirolak izango ditugu ikusgai. Aginagako bi talde eta Zubieta izango dira lehia bizian.

Besterik gabe, San Praxkuen zain geratzea besterik ez zaigu geratzen. Ondo pasa denok!

KALEBERRI — IRATI PORTU

# Berriro ere errutina goxoan



Eguraldi iragarleak ere esan du dagoeneko, has gaitezen onartzen beraz: uda amaitu da. Asko eta asko dagoeneko nazkatu ere egin dira udako jaiegun motz batzuen ostean lan egiteaz. Beste batzuk lanera bueltatu berriak izango dira… edo bestela gertu ikusten dute itzulera hori. Haurrak ere ikastolara bueltatu dira, baita institutuko gazteak ere. Arlo honetako pribilegiatuenok ere dagoeneko aste honetan hasi gara klaseetara. Nola gustatzen zaigun kexatzea eh!! Ni naiz lehenengoa ikasturteari tripako min izugarriaz helduko diona baina… Baita apur bat gustura ere.

Ekainan utzi genuen Usurbil hura itzuli da, jendea ageri da kalean, haurrak jolasean frontoian, baloiak ikusten dira errepidean behera atzetik gurasoen oihuak entzuten direlarik. Ez al genuen apur bat faltan botatzen? Nire hitzek norbait animatu edo agian engainatu izana espero dut. Hel diezaiogun errutina goxoari, ez dugu beste erremediorik eta!

Eta ahalik eta hobekien eramateko hona hemen proposamen bat: asteburu honetan denok Erniora!

ZUBIETA — GARAZI ITURRALDE

# Kontxara bidaia



Azken urte hauetan bezala, lehengo igandean Kontxara joan ginen erraustketaren aurkako giza katea egitera, nahiz eta euria egin.

11:30etan Kontxako lehen "ranpan" bildu ginen eta hamabiak aldera hondartzara jaitsi ginen. Denak bata bestearen atzetik ilara bat osatuz, bakoitzak bere aterkia eta kartelak eskuan zituelarik. Ilara ez zen oso luzea, Perlara ere ez ginen iritsi. Estropadak amaitu zirenean gu ere hondartzatik atera, dena jaso eta Zubieta aldera abiatu ginen. Elkartean geratu ginen bazkaltzen, Joxepak eginiko untxiak. Eskerrak eman behar dizkiogu Joxepari, oso goxoak baitzeuden untxiak. Ez zen ezer soberan geratu, dena jan zen, hain zegoen goxoa!



Hurrengo urtean ere izango da giza katea eta nik espero dut jende gehiago izatea, eta batez ere jende gaztea, oso gazte gutxi baitzegoen. Badakit estropadak direla, baina bi gauzak egiteko denbora ematen du.

## Xabier Mikel Errekondo, alkatea

# "Udaletxean jarraituko dugu lanean"

**Iragan astean kaleratu zen EAE-ANV alderdia legez kanporatzen duen epaia. Auzitegiek hartutako erabakiak udal gobernu taldean izan dezakeen eraginaz eta sententziaren balorazioaz mintzo da alkate Xabier Mikel Errekondo ondorengo lerrootan.**



HERRITARREK AUKERATU DITUZTENEZ, HERRIGINTZAN LANEAN JARRAITZEKO ZILEGITASUN OSOA DUTELA GOGORARAZI NAHI DU ALKATEAK.

**NOAUA! Epaia zer modutan aplikatuko da?**

**Xabier Mikel Errekondo.** Jada itxura minimorik ere ez dute zaintzen. Epaia bera ere idatzi aurretik eta zuzenean inputatutako aldeei jakinarazi aurretik prentsaurreko baten bidez eman du berria Auzitegi Nazionalak.

Hori jada esanguratsua iruditzen zait. Baina larriena, zalantza ikaragarriak sortuko dituela eta beti bezala Estatuak berak eman nahi dion interpretaziopean eta unean uneko interesen arabera aplikatuko dutela. Ederki ezagutzen ditugu ekar ditzakeen ondorioak.

**N. Zer balorazio egin dezakezue epaiaren inguruan?**

**X.M.E.** Aspaldi ezaguna zaigun gidoiaren errepikapena baino ez da, ohitu gaitezen nahi balute bezala. Nire ustez, PSOEk atzera pauso larria egin du, are eta gehiago, Loiolako negoziazio prozesuan Euskal Herriaren nazio izaera onartzeko prest agertu eta gero. Aznarren garairik beltzenera itzuli gara.

> **XABIER MIKEL ERREKONDO**
>
> "PSOEk, kosta ahala kosta, ezkerreko proiektu independentista ezabatu nahi du"

Askoz haratago iristeko prest dago PSOE, ez du mugarik. Estatu proiektua auzitan jartzen duen edonor legez kanporatu, kriminalizatu, bahitu, atxilotu, torturatu... egiten da. Baina, hau ez da berria, hor daude aurrekariak; Jarrai-Haika-Segi, 18/98… inolako probarik gabe, ehunka urteetara zigortuz euskal herritar konprometituak. Argi utzi digute, Estatua dela subjektu bakarra, Euskal Herriari nazio izaerarik ez diotela aitortzen eta erabakitze eskubiderik ez duela. Aurreko astean, haratago joan dira, EAE-ANV, EHAK, Gestorak eta Askatasuna ere ilegalak direla erabakita. Udalbiltza ere hor dugu, 1999an sortua zazpi probintziatako 1.700 hautetsirekin. Epaia laster etorriko zaio, 22 auziperaturekin. Egunkaria...

**N. Legez kanporatze prozesuak, atentatuak… EAE-ANVren aurkako epaia testuinguru zabalagoan kokatu behar da?**

**X.M.E.** PSOEk kosta ahala kosta, ezkerreko proiektu independentista ezabatu nahi du eta tarte horretan harrapatzen dituen guztiak aurretik eraman nahi ditu. Baina hor PSOEk hanka sar-

# "Zilegitasun osoa dugu herrigintzan aritzeko"

tze nabarmena egiten du; ulertu beharra du, arazoa bere buruaren jabe izan nahi duen Euskal Herriarekin duela. Nik ezker herri honekiko konfiantza eta konbentzimendu osoa dut, herri honek aurrera egingo duela, independentziarantz borrokan jarraituko duela.

Epaia politikoa da argi eta garbi. Auzitegi Nazionala tresna bat besterik ez da, Estatuak bere estatu proiektuaren aurka dabilen oro jazartzeko itxura legala emateko dabilkiena. Ziur naiz Europan erakundeek legez kanporatze horiek arbuiatu eta horien aurka egingo dutela. Europa aldatzen ari da. Izan ere, Europan jada autodeterminazio eskubidea eta independentzia bera ere, ohikoak bihurtzen ari dira.

**N. Alderdia bera legez kanpo geratzen da, baina zuek zeuon karguetan segitzeko aukera izango duzue?**

**X.M.E.** Guk hala ulertzen dugu. Azkenean, herritarrek aukeratu gaituzte, haien nahiagatik gaude hemen. Usurbilgo herritarrek nahi duten artean, hemen jarraituko dugu herrigintzan, Euskal Herriko nazioaren zati garela ulertuta. Zilegitasun osoa dugu herrigintzan aritzeko, ilegalizazioak lana zaildu egiten badigu ere. Ezkertiarra eta abertzalea den programa aurkeztu genuen udal hauteskundeetan eta orduan bezala une larri hauetan herri programarekiko konpromisoa berresten dugu. Guk lanean jarraituko dugu.

**N. Epaia salatzeko hainbat mobilizazioetarako dei egingo duzue.**

**X.M.E.** Hemendik herritar guztiei dei egiten diet, parte har dezaten. Ezin gara geldirik egon, hainbeste jazarpenen aurrean. Bere buruaren jabe izan nahi duen herria da jazarri nahi dena, gu bitarteko batzuk besterik ez gara, norabide horretan sinistu eta lanean ari garenak. Hilaren 25erako ezohiko Osoko Bilkura deitu dugu, egoerak erantzun apartekoa eskatzen duelako. Bertan mozio bat aurkeztu dugu eta, beste puntuen artean, datorren ostiralerako, urriak 3, udaletik manifestaziorako deia egitea proposatzen da.

**N. Auzitegietako erabakiak egunero-ko martxan zer modutan eragingo die herritarrei?**

**X.M.E.** Edozein idatzi, proposamen eta jarduera administratiboetan ere puntuak eta komak begiratu beharrean aurkituko gara, gurean talde izaerak inondik inora ezin baitu azaldu. Beti gaude, Arrasateko alkate Ino Galparsorori gertatu zitzaionaren mehatxupean.

**N. Arrasateko alkatea, ANVkoa, espetxeratu ostetik, udalen aurka jarduteko bide berri bat irekita geratu zen?**

**X.M.E.** Mezua argia da, mehatxua hor dago. Hitz hauetatik beretatik ere etor daiteke jazarpena. Estatuak eman nahi dion interpretaziopean gaude. Azkenean ez dugu inolako segurtasunik, ez udalean hartutako erabakietan ezta edozein adierazpenetan. Beti gaude mehatxupe horretan, eta presio hori da helarazi nahi izan digutena: edonor atxilotua izan gaitezkeela edozein momentutan…, orain arte ikusi den bezala.

**N. Azken egunetan, EAE-ANVren esku dauden Udalak desegiteko dagoen aukeraz hitz egin da.**

**X.M.E.** Estatuaren estrategia barruan dago zurrumurruak sortzea, interes jakin batekin. Birus baten moduan barreiatzen ditu berriak. Hartua duten erabaki larri bat plazaratu aurretik filtrazioen bidez jendartea aurrez ohitzea bilatzen du. Hortik aurrera, data erabakitzea besterik ez zaio geratzen.

ARITZ GORRITI

## "Lizarra-Garazi da bidea"

**N. Nola ikusten duzu etorkizun hurbila?**

**X.M.E.** Baikorra izan nahi dut, egoerarik beltzenean ere, sinisten dudalako herri honetan. Herri honek bere buruaren jabe izan nahi du eta lortu arte helburu horren alde ekiteko erabaki irmoa hartua dauka. Lizarra-Garazi da bidea. Orduan inoiz baino urduriago jarri zen Estatua eta neurri guztiak eta gehiago hartu zituen hura ezabatzearren. Ziur naiz, alderdi euskaldunen oinarri sozialek ulertzen dutela proiektu politiko guztiak onartu behar direla, independentzia barne, eta haren aldekoak direla. Azken bi bake prozesuetan EAJ-k bidearen erdia besterik ez du egin, egungo egoeran, eroso kudeatzen dituen baliabideen kontrola galdu nahi ez eta. EAJko oinarri sozialak independentziaren apustua egiten badu, zuzendaritzak ere hautu bera egin behar duelakoan nago, behingoz. Indar metaketa egiten badugu Euskal Herriak bere eskubideak dituela aitortzen dugun euskal alderdion artean, atzeraezinezko oinarriak jarriko genituzke. Eta hortik etorri behar du benetako bakea Euskal Herrira.

## Datorren astean, itxialdia udaletxean

Legez kanporatzeak salatzeko, Ezker Abertzaleak hainbat deialdi egin ditu.

IRAILAK 25, OSTEGUNA
**Ezohiko plenoa,** 19:30ean.

URRIAK 2-3
**Itxialdia Udaletxean.** Herri eragileekin bildu egoeraren analisia konpartitzeko. Itxialdi amaieran, manifestazioa herrian.

URRIAK 4, LARUNBATA
Manifestazio nazionala Bilbon.

# Zaintza-zerbitzuan izena emateko epea datorren astean amaituko da

**Goizeko 8:00etatik 9:00etara. Ordubete baino ez. Baina horri esker, guraso askok 8:00etan lanera joan eta haurrak ikastolan utz ahal izango dituzte. Herriko begirale batek zainduko ditu haurrak ordubetez, goizeko 9:00etan klaseak hasten diren arte.**



IZENA EMATEKO EPEA IRAILAREN 30EAN AMAITUKO DA.

Guraso askok zailtasunak dituzte lana eta familia uztartzeko. Beste ikastola batzuetan bezalaxe, Udarregin ere zaintza-zerbitzua jarri da martxan. Hartara, gurasoak 8:00etarako lanera joan ahal izango dute eta haurrak ondo zainduta egongo dira, klaseak goizeko 9:00etan hasi arte. Jolasak, musika, etxeko-lanak... Orohar, aisiarekin lotutako jarduerak egingo dira ordubeteko tarte horretan.

Begiralea usurbildarra da, titulioduna eta Udarregin ibilitako ikaslea.

Zaintza-zerbitzu hori Agerialden eskainiko da. Animatzen diren gurasoek, ordea, hilean kuota bat ordaindu behar dute. Gero eta guraso gehiago, ordaindu beharreko kuota merkeagoa izango da.

### Informazio gehiago ikastolan

3 urtetik gorako haurrak baliatu daitezke zerbitzu berri honetaz. Dagoeneko, hainbat guraso dira zerbitzu honekin bat egin dutenak. Izena emateko epea datorren astean amaituko da. Beraz, interesatuta daudenak, ikastolako idazkaritzan jasoko dute informazio gehiago, edo telefonoz ikastolara deituz, 943 36 12 16.

# Datorren astelehenetik aurrera, klaseak goiz eta arratsaldez Udarregin

Iratzargailuaren soinua, autobusen joan etorria, motxila eta liburu berriak, lagunekin berriz ere topo egitea, oporretako kontuak, hasierako urduritasuna.... Nahi izan edo gogo gabe ere, iritsi da eguna. Irailaren 9an hasi zen 2008-2009 ikasturte berria Udarregi ikastolan.

Lehen egunak beti udan egindakoaz hitz egiteko eta aurkezpen saioetarako baliatu arren, ikasleak laster batean erabat murgildu dira haien ohiko zereginetan.

Egunerokotasunerako itzulera ordea pixkanaka egin dute. Ikasturteko lehen bi asteetan ikasleek klaseak goizez bakarrik izan dituzte. Baina datorren astelehenetik aurrera hasiko dira klaseak, goiz eta arratsaldez.

## Urrian hasiko da Zirri-Borro tailerra

Urrian hasiko da Zirri-Borro eskulan tailerra. Ikasturte berrian, pintura eta eskulan ikastaroak eskainiko dira. Informazio gehiago honako telefono zenbakian:

609 41 38 83 (Susana).

## Dantza Taldearen bilera Agerialden

Aurreko astean iragarri genuen bezala, urrian hasiko dira Dantza Taldearen entseguak. Dena den, irailaren 26an bilera bat egingo da arratsaldeko 16:30ean Agerialden. Ikasle eta gurasoekin batera, ikastaroko egunak eta ordutegiak zehaztuko dira ostiral honetako bileran.

## Begirale ikastaroan izena emateko garaia

Ttakun elkarteak begirale titulua eskuratzeko ikastaro berri bat antolatu du. Izena emateko epea irailaren 26an amaituko da.

Ikastaroa osatzen dutenek Eusko Jaurlaritzako titulazio homologatua jasoko dute. Ez hori bakarrik, Ttakunen egitasmoetan parte hartzeko aukera zuzena izango dute: udako txokoak, kanpaldiak, ludoteka, Eskola Kirola...

Izena emateko, 18 urte beteta eduki behar dira (edo ikastaroan zehar bete). Prezioa: 440 euro, matrikularen kostea eta aterpeko egonaldien kostea.

Informazio gehiago: Ttakun Kultur Elkartean; 943 371 448 telefono zenbakian; aisia@ttakun.com helbidean.

# Einean Guraso Eskolak ikastaro ugari prestatu ditu

**Urrian hasiko dira Einean Guraso Eskolak prestatu dituen ikastaroak. Azpiko taulan ikusiko duzuenez, ikastaro batzuk aste gutxi batzuetan osatzeko modukoak dira: sukaldaritza eta autoestima tailerrak. Baina badira ikasturte osoan zehar luzatuko direnak: laboreak, saloi dantzak, yoga, lore artea...**



YOGA IKASTAROA URRIAN HASI ETA EKAINEAN AMAITUKO DA.

### Izen-ematea, irailaren 26an

Batzuetan zein besteetan, izena emateko epea datorren astean amaituko da, irailaren 26an.

Einean Guraso Eskolakoak Txaramunto 1 kaleko egoitzan (AEK-ko lokalean, Zumarte Musika Eskolaren ondoan) izango dira irailaren 26an ostirala, ordutegi honetan: goizez 11:00-12:00. Arratsaldez, 17:00-19:00. Telefonoz ere egin daiteke, arratsaldez deituz, 17:00etatik 19:00etara: 615 006 535.

**LABOREAK**
Boliloak, "punto cruz", gantxiloa... Urritik ekainera, astean behin bi orduz.

**SALOI DANTZAK**
Indi hoop, salsa, merenge, tango, rock... Urritik ekainera, astean behin bi orduz.

**YOGA**
Luzaketak, arnasketak, lasatzeak... Urritik ekainera, astean behin bi ordu eta erdiz.

**MEMORIA LANTZEN**
Urrian hasita, astean ordubete, 12 astez.

**SUKALDARITZA**
Urrian hasita, 6 astez, astean ordu eta erdi.

**ESKULANAK, PINTURA...**
Oleoa, akuarela, pastela, pintura tela gainean... Urritik ekainera bitartean, astean behin bi orduz.

**SABEL DANTZA**
Urritik ekainera bitartean, astean behin bi orduz.

**BITXIGINTZA**
Urritik ekainera bitartean, astean behin ordu eta erdiz.

**MASAJEA**
Lau hilabete, astean behin bi orduz.

**AUTOESTIMA**
Azaroan hasita, 8 aste, ordu eta erdi astean.

**LORE ARTEA**
Urritik ekainera bitartean, astean behin ordu eta erdiz.

**IZEN-EMATEA**
Txaramunto, 1 kaleko egoitzan (AEK-ko lokalean, Zumarte Musika Eskola ondoan). **Irailak 26 ostirala,** goizean 11:00-12:00. Arratsaldean, 17:00-19:00. Telefonoz arratsaldetan, 615 006535 (17:00etatik 19:00etara).

## Memoria lantzeko ikastaroa

Gure Pakea elkarteak memoria lantzeko ikastaroa antolatu du. Aukeran, euskaraz edo gazteleraz egin ahal izango da. Izen-ematea Gure Pakearen egoitzako bulegoan egin beharko da. Goizez, 10:00etatik 12:00etara eta, arratsaldez, 16:00etatik 18:00etara. Kontuan izan irailaren 24an amaituko dela izena emateko epea. Ikastaroa, ordea, urrian hasiko da. Informazio gehiago Gure Pakea egoitzan.

## Yoga ikastaroa Aginagan

Aginagako Zaharren Egoitzan yoga ikastaroa prestatu dute. Nahi duenak izena eman dezake. Horretarako Zaharren Egoitzara jo behar da edota telefono zenbaki honetara deitu: 943 36 63 40.

Urriaren 1ean asteazkena hasiko da yoga ikastaroa eta ikasturtean ere, saioak asteazkenetan egingo dira, ordutegi honetan: 20:00etatik 21.30era. Informazio gehiago Zahar Egoitzan (Argitxurengatik galdetu).

## Ikastaro ugari Santuenea elkartean

Santuenea Kultur Elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu: yoga, dantza, autoestima,antzerkia, pintura eta plastika, maketa, jostea…

Urrian hasiko dira ikastaro hauek. Informazio gehiago: 943371535/ 943365031.

## Office ikastaroa Lanbide Eskolan

Irailaren 29an Usurbilgo Lanbide Eskolan "Office" ikastaroa hasiko da. Informazio gehiago: 943 36 46 00.

# Panpako lezka edo "plumeroa" geldiarazteko lanak abian dira

**Panpako lezka, "plumero" gisa ezagutzen dugun landare espezie inbaditzailea ingurumen arazo larriak eragiten ari da. Eta ez urruti, geure inguruko lur eremu desberdinetan hedatua baitago; udal lurretan baina baita lur sail partikularretan ere. Udal jabegokoak diren inguruak tratatzen hasi dira jada. Lur eremu partikularrak falta dira ordea. Udalak, haiekin lehenbailehen harremanetan jartzera deitzen ditu lurjabeak. Aipatu espezie inbaditzailea desagerrarazteko.**

Jatorria Hego Ameriketako eskualde epeletan du; Argentina, Uruguay, Brasil hegoaldean eta Txileko kosta partean. Europara XVIII. mende amaieran ailegatu zen, Ingalaterrara hain zuzen. Baina bere hedatzea ez zen hor amaitu. 1953. urtean Santanderren agertu baitzen.

### Bertako floraren aurkakoa

Geure ingurua handik oso gertu egonik, ez da harritzekoa denboraren poderioz haizeak garraiatuta honaino iritsi izana. Panpako lezka, "plumifero" gisa ezagutzen dugun landare espezie inbaditzaileari buruz ari gara.



UDALAK DAGOENEKO HASI DU LANDAREAREN AURKAKO TRATAMENDUA.

Arriskutsua da, ingurunean eragin ditzakeen kalteengatik. Bertako flora desagertzea, habitat naturalen degradazioa, bio aniztasunean eta paisaiaren kalitatean galera edota erabilera publikora bideratutako inguruen aukerak murriztu baititzake. Horri guztiari, aipatu espezieak hedatzeko duen erraztasuna gaineratu behar zaio. Ekoizpen inguru batetik haizeak edota obretarako erabiltzen diren kamioiek 30 kilometrotara garraia ditzakete eta haziak. Ez gutxi gainera, kalkulatzen denez, 100.000 hazi lore eme bakoitzeko edo 1.000.000 hazi landare eme bakoitzeko.

Egoera aintzakotzat hartuta, espezie honen hedadura zenbaterainokoa den ezagutzeko Foru Aldundiaren eskariz Aranzadi Zientzia Elkarteak espezie horren kartografia inbentarioa egin du. Hala, espezie inbaditzaile hau aurkitu duten herrietako Udalei informazioa helarazi diete.

## Landarearen aurkako tratamendua Udalak eskaintzen du

Aipatu espezie inbaditzailea udal lurretan eta lur eremu partikularretan zabaldu da. Udalaren jabegotzako guneetan lorezainak dagoeneko inguruak tratatzen hasiak dira. Hori dela eta, Udaletik panpako lezka haien lur eremuan duten jabe partikularrei dei egiten diete ahal bezain azkar udaletxera jo dezaten. Udalak informazioa helaraztearekin batera, espezie inbaditzaile horren aurkako tratamendua emateko aukera eskaintzen baitu. Egiaztatu ahal izan denez, metodorik eraginkorrena belarra moztu eta muin zurruna herbizida kimiko batekin tratatzea da.

### Tratamendua, lehenbailehen

Deituta edo udaletxera joanda, baina lehenbailehen egin dezatela ohartarazten dute. Hain zuzen, tratatze lanak urrian sartzerako bukatzea komeni baita. Haziak sakabanatzen hasi baino lehen.

### Oso zabaldua herrian

Usurbilen, gehienak errepide inguruetan aurkitu dituzte:

- Aginagan, Intxaurreta eta Mapil lur eremu inguruetan.

-Usurbil aldera datorren N-634 errepide ondoan, Kaparoz aldean.

-Zumartegi industria gunean, N-634 errepide ondoan.

-Bizkarren eta Anerreka ondoan.

-Troiatik gertu, trenbide ondoan.

-Urbil merkataritza-gune inguruan.

# Aurreko asteko jaiek Santuenea piztu zuten

**Etorri bezala, azkar batean amaitu dira Santueneko jaiak. Asteburu bete ekitaldi izan da, auzotarren eta bertaratu direnen gozamenerako.**

Eguraldiak lagunduta, ez ziren gutxi izan Santueneko jaietara hurbildu zirenak pasa den asteburuan. Mus txapelketa zela, Josune Aranbururen kantu afaria edota Larra Dj-ren emanaldiak, haur jolasak... Denetariko ekitaldiek auzoa biziberritu dute. Eta amaierarako gorde zuten onena; ikusi eta entzuteko moduko traka. Santuenea egunerokotasunera itzulia da jada, baina ez ahaztu betikoa; datorren urteko jaietarako, geroz eta gutxiago falta da.









## Gipuzkoako Pilota Txapelketa, asteburuko partidak

**IRAILAK 26, OSTIRALA**
**AGINAGAN, 18:00**
Kadeteak 2.maila
USURBIL - AÑORGA
(Julen Uli, Imanol Zinkunegi)

JUBENILAK 2.maila
USURBIL 1 - ATAUN
(Iban Arruti, Josu Ostolaza)

PALETA GOMA 3.maila
USURBIL - ALDE ZAHARRA
(Jokin Zubiaur, Jon Olaizola)

**IRAILAK 26, OSTIRALA**
**AZPEITIAN, 21:00**
NAGUSIAK 2.maila
ILUNPE 2 - USURBIL 2
(Enrike Huizi, Aitzol Txapartegi)

**IRAILAK 26, OSTIRALA**
**LOIOLAN, 20:00**
PALETA GOMA NAGUSIAK 2.maila
LOIOLATARRA - USURBIL
(Iñigo Huegun, Aritz Urdanpilleta)

**IRAILAK 27, LARUNBATA**
**USURBILEN, 11:30**
JUBENILAK 2. maila
USURBIL 2 - ARETXABALETA
(Asier Aranburu, Julen Gesalaga)

NAGUSIAK 2. maila
USURBIL 1 - ZUMAIA
(Javier Santxo-Asier Katalina)

**IRAILAK 28, IGANDEA**
**AGINAGAKO PILOTA TXAPELKETA**
10:00etan, finalak. Eskuz nahiz palaz.

## Igandean Zubietan, Endika Abril Txapelketa

Pixkanaka lehen fasearen bukaerara gerturatzen ari da, XLV. Endika Abril errebote Txapelketa. Hiru jardunaldi besterik ez, amaiera fasea jokatzeko. Datozen hitzorduak, igande honetan.

Zubietako Errebote plazan, Luzaz Gazte eta Zubieta 1 taldeak arituko dira igande honetan, 11:00etatik aurrera. Zubieta 2 taldeak ordu berean baina Villabonan jokatuko du, Behar Zanaren aurka.

### Txapelketa zabaltzen

Urte luzez kirol txapelketa gune bakarrean jokatu da, Zubietan oso osorik. Orain ordea, beste bi eskenatokirekin partekatzen du txapelketa; Villabona eta Oiartzunekin.



IGANDEAN, GOIZEKO 11:00ETAN HASIKO DA PARTIDA.

## Iñaki Errasti, datorren urtean TKE Ligan

Kaiku eta Meira izango dira TKE-San Miguel arraun ligan arituko diren bi talde berriak, Arkote eta Laredoren kaltean. Sestaoko Kaiku, arraunean historikoa, elitera itzuliko da eta datorren denboraldian TKE Ligan arituko da onenekin. Tartean, Iñaki Errasti Aginagako arraunlaria. Datorren urtean, beraz, Jose Luis Kortaren aginduetara jarraituko du Kaikun baina TKE Ligan, arraun munduko maila gorenean.

# 252 korrikalari Lehen Baxurde Krossean

**Baxurde Txiki Triatloi Taldeak antolatzen zuen lehen krossa zen. Jendearen erantzuna zein izango zen ez zekiten. Baina ustekabean, 252 izan ziren aurreko igandeko krossean izena eman zutenak.**

Mutiletan, Andoni Illarramendi Lasarte-Oriakoa izan zen garailea, 10,5 km distantzia 34 minutu 29 segundutan osatu eta gero. Joxean Beledo irundarra bigarren eta Joseba Jauregi tolosarra hirugarren. Usurbildarren artean, Iñaki Añorga izan zen lehena (36´ 20´´).

Nesketan, Claudia Behobide hondarribitarra izan zen nagusi (40´ 14´´). Aitziber Ibarbia zizurkildarra bigarren eta Idoia Ezeiza usurbildarra hirugarren.



Lehen hiru sailkatuek sari bana eskuratu zuten.

## Lehen Baxurde Krossaren sailkapena

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | ANDONI ILLARRAMENDI SAGARNA | 0:34:29 | LASARTE |
| 2 | JOXEAN BELEDO LOMA | 0:34:33 | IRUN |
| 3 | JOSEBA JAUREGI LEUNDA | 0:34:39 | TOLOSA |
| 4 | XABIER AZKUE ETXEBERRIA | 0:35:48 | ORERETA |
| 5 | JEXUX ZELAIA ETXANIZ | 0:35:54 | AZPEITIA |
| 6 | IBAI ALBA VILCHEZ | 0:35:56 | HERNANI |
| 7 | SERGIO | 0:36:03 | - |
| 8 | IÑAKI AÑORGA UNANUE | 0:36:20 | USURBIL |
| 9 | ENRIQUE PIEDRA | 0:36:22 | BILLABONA |
| 10 | MARTIN LARRAÑAGA | 0:36:41 | USURBIL |
| 11 | NANDO DIAZ MENENDEZ | 0:36:54 | URNIETA |
| 12 | LIZAR IRAZUSTA ETXEBERRIA | 0:37:12 | DONOSTIA |
| 13 | IMANOL ARRUTI EZEITZA | 0:37:20 | ANDOAIN |
| 14 | ZESAR FERNANDEZ KARRERO | 0:37:21 | ORDIZIA |
| 15 | IKER GONZALEZ AYERBE | 0:37:42 | DONOSTIA |
| 16 | J. C. URDANPILLETA LABAYEN | 0:37:51 | BILLABONA |
| 17 | ROBERTO GARCIA HERRERO | 0:37:52 | EIBAR |
| 18 | IGOR LAZKANO ARANA | 0:37:54 | ESKORIATZA |
| 19 | HARITZ ITURBE AROZENA | 0:38:03 | AZPEITIA |
| 20 | JOSEBA FERNANDEZ AROSTEGI | 0:38:04 | DEBA |
| 21 | RAUL TEJADO MUÑOZ | 0:38:04 | LASARTE |
| 22 | IGOR MAIZ PAGOLA | 0:38:05 | USURBIL |
| 23 | ANDONI AGIRRE EGAÑA | 0:38:07 | ZUMAIA |
| 24 | IÑAKI GERICA JUAN | 0:38:12 | USURBIL |
| 25 | IÑAKI MORENO GONZALEZ | 0:38:32 | BILLABONA |
| 26 | GARIKOITZ AMORRORTU | 0:38:32 | HONDARRIBIA |
| 27 | ROQUE LARRAÑAGA AGUIRREOA | 0:38:33 | MUTRIKU |
| 28 | AITOR MURUA URDANGARIN | 0:38:39 | ANDOAIN |
| 29 | ANDONI IBARBIA AIZPURU | 0:38:46 | ERREZIL |
| 30 | JOSE LUIS DELGADO ARENALES | 0:38:47 | LASARTE |
| 31 | LUIS ENRIQUE GALLEGO OLMO | 0:38:52 | HERNANI |
| 32 | GARIKOITZ BALERDI ATXEGA | 0:39:03 | OREXA |
| 33 | IMANOL IBARGUREN ESNAL | 0:39:22 | ZARAUTZ |
| 34 | IBON IRIONDO GOENAGA | 0:39:29 | HERNANI |
| 35 | JON ARANBURU AZPITARTE | 0:39:44 | ZARAUTZ |
| 36 | KOLDO MANTEROLA AIZPURUA | 0:39:45 | USURBIL |
| 37 | XABIER ROTETA ODRIOZOLA | 0:39:51 | ZARAUTZ |
| 38 | IGOR CORCUERA IZAGUIRRE | 0:40:04 | DONOSTIA |
| 39 | JON MUJIKA ARAKAMA | 0:40:12 | - |
| 40 | CLAUDIA BEHOBIDE ALCAIN | 0:40:14 | HONDARRIBIA |
| 41 | FRANCISCO JAVIER RÁBANO RUBIO | 0:40:15 | USURBIL |
| 42 | IÑIGO LARRAÑAGA AGIRREOA | 0:40:16 | ONDARROA |
| 43 | JOSEBA ETXEGOIEN ERRANDONEA | 0:40:24 | LEZO |
| 44 | JOXE MARI ETXEBERRIA GARMENDIA | 0:40:29 | ZIZURKIL |
| 45 | ANDONI HIDALGO ROMERO | 0:40:32 | DEBA |
| 46 | JOSE Mª MARTIN RAMIREZ | 0:40:34 | BEASAIN |
| 47 | ASIER MUJIKA BRIZ | 0:40:35 | ELDUAIEN |
| 48 | JOSE FELIX CHAVES PEREZ | 0:40:35 | ZUMARRAGA |
| 49 | ENRIQUE HERNANDEZ AZKONA | 0:40:38 | IRUN |
| 50 | UNAI IMAZ EIZAGIRRE | 0:40:53 | USURBIL |
| 51 | JAVIER ORBEGOZO MUNARRIZ | 0:40:57 | DONOSTIA |
| 52 | XIXARIO URANGA ARTOLA | 0:41:06 | ORIO |
| 53 | JUAN MIGUEL KAPEROTXIPI AZPIAZU | 0:41:13 | ZARAUTZ |
| 54 | IGOR SASIAIN MARTINEZ | 0:41:19 | USURBIL |
| 55 | ALEX FERNANDEZ ACHA | 0:41:23 | URRETXU |
| 56 | ALAITZ ARANSOLO URKIOLA | 0:41:24 | ERMUA |
| 57 | HARITZ BARRUTIA | 0:41:27 | ELGETA |
| 58 | ARITZ | 0:41:33 | - |
| 59 | JOSE LUIS TOLEDOTXIKI KEREJETA | 0:41:36 | URNIETA |
| 60 | JEXUS LARRETXEA GONZALEZ | 0:41:36 | OIARTZUN |
| 61 | UNAI SANTAMARIA ARANBURU | 0:41:40 | HERNANI |
| 62 | ARKAITZ AGIRRETXE | 0:41:43 | ERREGIL |
| 63 | JOSU GISASOLA GONZALEZ | 0:41:45 | EIBAR |
| 64 | XABIER UDABE PAGOLA | 0:41:53 | USURBIL |
| 65 | ASIER DE LA TORRE SALABERRIA | 0:41:57 | ZARAUTZ |
| 66 | KOLDO LERTXUNDI AZKUE | 0:42:07 | USURBIL |
| 67 | ENEKO GONZALEZ IZAGUIRRE | 0:42:10 | USURBIL |
| 68 | RAFAEL RUIZ ATXIAGA | 0:42:11 | DONOSTIA |
| 69 | JUAN MARIA MARCOS MOLINA | 0:42:13 | LASARTE |
| 70 | IKER URIBARRENA IRURETAGOYENA | 0:42:17 | ZUBIETA |
| 71 | MIKEL CALVO YARZA | 0:42:17 | LASARTE |
| 72 | AITZIBER IBARBIA BELOKI | 0:42:18 | ZIZURKIL |
| 73 | MIKEL VILLARROYA MACAZAGA | 0:42:19 | LASARTE |
| 74 | IÑIGO ORBEGOZO LIZARRA | 0:42:22 | AZPEITIA |
| 75 | MIKEL MALKORRA ELORDI | 0:42:28 | BEASAIN |
| 76 | GARIKOITZ ARRIZABALAGA ARRIETA | 0:42:32 | ZESTOA |
| 77 | XABIN ARANAGA ALDANONDO | 0:42:33 | AZPEITIA |
| 78 | JUANJO ESTEVEZ | 0:42:42 | AGINAGA |
| 79 | EÑAUT PAGOLA BEREZIARTUA | 0:42:48 | USURBIL |
| 80 | ALMUDENA SALAS ANDRADE | 0:42:56 | URNIETA |
| 81 | IDOIA EZEIZA IRURETAGOIENE | 0:43:00 | USURBIL |
| 82 | ASIER | 0:43:04 | - |
| 83 | IBON URDANPILLETA LIZARDI | 0:43:09 | LASARTE |
| 84 | UNAI URANGA SISNIEGA SISNIEGA | 0:43:28 | OIARTZUN |
| 85 | KONRAD SAN MILLAN CORDOVA | 0:43:33 | DONOSTIA |
| 86 | ABEL POZA | 0:43:40 | ERMUA |
| 87 | JOSEBA ZUBELDIA AGIRRE | 0:43:44 | USURBIL |
| 88 | IÑIGO IZETA SARASOLA | 0:43:49 | AIA |
| 89 | ANJEL SUBIZAR ASKUNZE | 0:43:51 | LEGASA |
| 90 | RODOLFO PARRA RODRIGUEZ | 0:43:51 | ANDOAIN |
| 91 | ALEX CASTANDER URRUTIA | 0:43:55 | DONOSTIA |
| 92 | MIKEL ILLARRAMENDI IRIBAR | 0:43:56 | GETARIA |
| 93 | GUILLERMO HUGLET RODRIGUEZ | 0:43:58 | USURBIL |
| 94 | GILLERMO CANAS AMOEDO | 0:44:01 | ORERETA |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 95 | XABIER LASAGA TELLETXEA | 0:44:05 | LEZO |
| 96 | AMAIA BERNAL ARREGI | 0:44:06 | OÑATI |
| 97 | IAGOBA ALDALUR KORTA | 0:44:07 | AZPEITIA |
| 98 | CAMILO MUÑOZ PEÑAS | 0:44:08 | ERMUA |
| 99 | MIKEL ESCRIBANO MENENDEZ | 0:44:13 | ARESO |
| 100 | GURUTZ LOPETEGI MENDIZABAL | 0:44:14 | IGELDO |
| 101 | LANDER MUÑOA AMONDARAIN | 0:44:18 | HERNANI |
| 102 | XABAT AIZPIOLEA IRADI | 0:44:19 | HERNANI |
| 103 | MIKEL ESNAOLA OLAIZOLA | 0:44:21 | DEBA |
| 104 | MANUEL MATEOS LOPEZ | 0:44:22 | DEBA |
| 105 | ALBERTO LA FUENTE ROJO | 0:44:25 | - |
| 106 | JOSEMA FERNANDEZ INSAUSTI | 0:44:27 | ERRENTERIA |
| 107 | XABIER ESNAOLA BERECIARTUA | 0:44:30 | LASARTE ORIA |
| 108 | OLENA KUZYACHENKOVA | 0:44:33 | IRUÑA |
| 109 | IGOR FERNANDEZ GAMAZO | 0:44:37 | EIBAR |
| 110 | IÑAKI FERNANDEZ HOYUELOS | 0:45:12 | LASARTE |
| 111 | ARKAITZ ARRUTI EIZAGIRRE | 0:45:13 | ERREZIL |
| 112 | JON RUEDA ETXEBERRIA | 0:45:14 | USURBIL |
| 113 | EDUARDO ORMAZABAL GARMENDIA | 0:45:21 | LASARTE ORIA |
| 114 | ANTONIO BELLIDO GARCIA | 0:45:28 | ORIO |
| 115 | JOSE MARI MURUA MENDIZABAL | 0:45:28 | HERNANI |
| 116 | FERMIN BERASALUZE UCIN | 0:45:30 | ZARAUTZ |
| 117 | ALVARO SUAREZ LOURENKO | 0:45:35 | DONOSTIA |
| 118 | ARITZ CORCUERA IZAGIRRE | 0:45:43 | LASARTE ORIA |
| 119 | MIKEL ARANBURU | 0:45:43 | USURBIL |
| 120 | AITOR LAVADO RODRIGUEZ | 0:45:49 | ANDOAIN |
| 121 | JUAN MARI AGOTE GOIARAN | 0:45:51 | USURBIL |
| 122 | OROITZ ALTUNA IBARGUREN | 0:45:51 | AGINAGA |
| 123 | IÑAKI ARRUTI IRAOLA | 0:45:53 | ANDOAIN |
| 124 | JABIER ZUBIRIA AYERZA | 0:45:55 | USURBIL |
| 125 | IGOR AMANTEGI IBARZABAL | 0:45:57 | LASARTE |
| 126 | FLOREN LANZ | 0:45:59 | - |
| 127 | ENEKO | 0:46:00 | - |
| 128 | EDUARDO | 0:46:08 | - |
| 129 | JOSEBA BENGOETXEA MENDIZABAL | 0:46:20 | USURBIL |
| 130 | ARANTXA EIZAGUIRRE ZALDUA | 0:46:29 | USURBIL |
| 131 | IÑAKI SUDUPE NOGUES | 0:46:29 | LASARTE ORIA |
| 132 | JUAN JOSE GABILONDO HUEGUN | 0:46:34 | DONOSTIA |
| 133 | JOSEBA REZOLA EIZAGUIRRE | 0:46:34 | DONOSTIA |
| 134 | BEÑAT AZPIAZU UGARTE | 0:46:43 | LEGAZPI |
| 135 | DIEGO LIMON PEREZ | 0:46:44 | LEGAZPI |
| 136 | EDUARDO ZABALA BILBAO | 0:46:49 | ARRASATE |
| 137 | XABIER ROMERO BERASATEGI | 0:47:05 | TOLOSA |
| 138 | JOSEBA IPARRAGUIRRE USARRALDE | 0:47:08 | LASARTE ORIA |
| 139 | JUANMA LIZARTZA URRESTARAZU | 0:47:09 | DONOSTIA |
| 140 | IBAN ZUBELDIA RODRÍGUEZ | 0:47:12 | DONOSTIA |
| 141 | JESUS CASTRO GONZALEZ | 0:47:15 | USURBIL |
| 142 | AXIER | 0:47:24 | - |
| 143 | MIKEL BENGOETXEA LOIDI | 0:47:26 | ZARAUTZ |
| 144 | AITZOL ARROSPIDE SARASOLA | 0:47:27 | USURBIL |
| 145 | MIKEL OTAEGI IRASTORZA | 0:47:27 | USURBIL |
| 146 | JON | 0:47:29 | - |
| 147 | RAMON | 0:47:40 | - |
| 148 | JUAN MANUEL MARTIN DIOSDADO | 0:47:40 | USURBIL |
| 149 | PATRI BRAVO BECERRA | 0:47:43 | ORIO |
| 150 | XABIER PRADA FERNANDEZ | 0:47:50 | LASARTE ORIA |
| 151 | IÑAKI IRAOLA . | 0:47:57 | DONOSTIA |
| 152 | HARKAITZ ARIZTIMUÑO MANZISIDOR | 0:48:01 | ANDOAIN |
| 153 | IKER MUGURUZA PIKABEA | 0:48:28 | USURBIL |
| 154 | ERRAMUN ERRO AIZPURUA | 0:48:28 | USURBIL |
| 155 | IKER EGIDO ALDASORO | 0:48:31 | DONOSTIA |
| 156 | GORKA LASA AZPIAZU | 0:48:34 | USURBIL |
| 157 | IGOR UNANUE URDAPILLETA | 0:48:34 | LASARTE ORIA |
| 158 | JAVIER MUÑOZ DE LA TORRE | 0:48:36 | ERMUA |
| 159 | JOSEBA UNANUE ARRUARTE | 0:48:39 | URNIETA |
| 160 | ARITZ MARTIN LIZASO | 0:48:40 | USURBIL |
| 161 | MANU | 0:48:43 | - |
| 162 | JOSE LUIS ARZALLUS SILVA | 0:48:45 | LASARTE |
| 163 | JOSE MARIA SEOANE MAYOZ | 0:48:54 | GETARIA |
| 164 | IONE | 0:48:54 | - |
| 165 | AITOR KORTA EGAÑA | 0:48:55 | ZARAUTZ |
| 166 | LUKAS ARROSPIDE JAUREGI | 0:49:01 | USURBIL |
| 167 | MIKEL ARTOLA AZKUE | 0:49:09 | - |
| 168 | JUAN JOSE URAIN TRUCHUELO | 0:49:09 | DEBA |
| 169 | EZEZAGUNA 476 | 0.49.10 | - |
| 170 | AITOR | 0:49:14 | - |
| 171 | ANDONI UDABE ASTIGARRAGA | 0:49:15 | USURBIL |
| 172 | MAIALEN ALVAREZ EGAÑA | 0:49:27 | DONOSTIA |
| 173 | AITOR VIDAL ESTANGA | 0:49:31 | DONOSTIA |
| 174 | LEIRE LIZARRALDE ZALACAIN | 0:49:39 | VILLABONA |
| 175 | HARITZ GUTIERREZ ZUBIZARRETA | 0:49:40 | DONOSTIA |
| 176 | ASIER ARRIETA VALLEJO | 0:49:40 | ELGOIBAR |
| 177 | TOMAS GONZALEZ JARAMILLO | 0:49:41 | ELGOIBAR |
| 178 | JUAN IGNACIO LOPEZ ARAMENDI | 0:49:48 | BERGARA |
| 179 | JOXEMARI PORTU AZPIROZ | 0:49:54 | USURBIL |
| 180 | IGNACIO GURRUTXAGA BEREZIARTUA | 0:49:54 | AZPEITIA |
| 181 | JOSU BENITO MENDEZ | 0:49:54 | USURBIL |
| 182 | GORKA ASTIAZARAN AIZPURUA | 0:50:04 | USURBIL |
| 183 | SEBAS ARANBURU IRUIN | 0:50:05 | BILLABONA |
| 184 | MIKEL PRIETO MARTINEZ | 0:50:06 | ADUNA |
| 185 | IÑIGO PAGOLA URANGA | 0:50:19 | USURBIL |
| 186 | IMANOL ALMANDOZ ODRIOZOLA | 0:50:20 | USURBIL |
| 187 | JUAN JOSE LERTXUNDI AZKUE | 0:50:20 | DONOSTIA |
| 188 | ALEX GONZALEZ SANTA CRUZ | 0:50:21 | ANDOAIN |
| 189 | KARLOS SOIANA ARRUTI | 0:50:21 | DONOSTIA |
| 190 | PATXI PAGOLA GOLDARAZENA | 0:50:21 | USURBIL |
| 191 | AGUS PALACIOS GIRON | 0:50:22 | ARAMAIO |
| 192 | IMANOL ODRIOZOLA GARMENDIA | 0:50:22 | LEGAZPI |
| 193 | AITOR BERASATEGI ORBEGOZO | 0:51:00 | AZPEITIA |
| 194 | AIMAR | 0:51:00 | - |
| 195 | MIKEL ARRILLAGA AZKARATE | 0:51:08 | USURBIL |
| 196 | JOSE MARIA LOPEZ ROMERO | 0:51:13 | ERRENTERIA |
| 197 | MANU | 0:51:15 | - |
| 198 | JUAN CARLOS | 0:51:16 | - |
| 199 | PEDRO BARAMENA HERNANDEZ | 0:51:19 | URNIETA |
| 200 | AMAIA BERNAL ARREGI | 0:51:24 | OÑATI |
| 201 | IÑAKI ERREKONDO SALSAMENDI | 0:51:50 | USURBIL |
| 202 | ENEKO IZAGIRRE CASTRESANA | 0:51:59 | ZUBIETA |
| 203 | ARITZ ESNAL ODRIOZOLA | 0:51:59 | - |
| 204 | JOSE MANUEL ZARAUTZ ARRUTI | 0:52:03 | LASARTE |
| 205 | ALMUDENA SALAS ANDRADE | 0:52:25 | URNIETA |
| 206 | ASIER | 0:52:27 | - |
| 207 | XABIER FRIAS ALTUNA | 0:52:38 | DONOSTIA |
| 208 | JUANJO ESTEVEZ MARTIN | 0:52:43 | AGINAGA |
| 209 | IÑAKI GOÑI IRAZUSTA | 0:52:50 | DONOSTIA |
| 210 | UNAI GEREÑU FARIÑAS | 0:53:13 | DONOSTIA |
| 211 | GORKA IZKO CIERVIDE | 0:53:13 | DONOSTIA |
| 212 | EÑAUT LASARTE LASARTE | 0:53:13 | USURBIL |
| 213 | GUILLERMO RUEDA ETXEBERRIA | 0:53:13 | USURBIL |
| 214 | PAULO JORGE GONÇALVES FERNANDES | 0:53:16 | ANDOAIN |
| 215 | AITZIBER EIZAGIRRE ZALDUA | 0:53:17 | USURBIL |
| 216 | CARLOS TEJADO MUÑOZ | 0:53:45 | ZARAUTZ |
| 217 | JOXE MARI IRAZUSTA IRIBAR | 0:53:45 | USURBIL |
| 218 | IMANOL ZARANZ BENGOETXEA | 0.54:01 | USURBIL |
| 219 | GORKA OTXORENA ARRATIBEL | 0:54:01 | HERNANI |
| 220 | DANI GOÑI IRAZUSTA | 0:54:08 | DONOSTIA |
| 221 | JOSE LUIS VARELA DEL VILLAR | 0:54:08 | TOLOSA |
| 222 | EDUARDO LOITI RODRIGUEZ | 0:54:23 | USURBIL |
| 223 | IÑIGO TELLO SANCHEZ | 0:54:40 | OIARTZUN |
| 224 | MARTIN MENDIZABAL GARAI | 0:54:59 | DONOSTIA |
| 225 | IÑIGO OLAZABAL EIZAGIRRE | 0:55:00 | ZARAUTZ |
| 226 | JOSE DANI ELOCA | 0:55:00 | - |
| 227 | JAGOBA BERASALUZE SORRELUZ | 0:55:23 | GETARIA |
| 228 | ARKAITZ ETXANIZ OSA | 0:55:23 | ZARAUTZ |
| 229 | JUAN LUIS TEREGI EZEITZA | 0:55:29 | LASARTE |
| 230 | JUANTXO PRIETO | 0:55:30 | LASARTE |
| 231 | IÑAKI INTXAUSTI BERROA | 0:55:30 | DONOSTIA |
| 232 | JOSU GISASOLA GONZALEZ | 0:55:44 | EIBAR |
| 233 | IGNACIO CASTILLO DUQUE | 0:55:56 | PASAI DONIBANE |
| 234 | MAITANE ARAMENDI ESNAL | 0:56:05 | ZESTOA |
| 235 | XABIER GALARRAGA BERASATEGI | 0:56:05 | ZARAUTZ |
| 236 | JUAN MARI GASTESI ZABALETA | 0:56:11 | LASARTE |
| 237 | LEIRE GOENAGA ZABALA | 0:57:40 | BILLABONA |
| 238 | JON ARROYO ALKORTA | 0:57:48 | LASARTE |
| 239 | LUIS MARI GALINDO | 0:57:51 | BILLABONA |
| 240 | IMANOL ALTUNA VEGAS | 0:57:52 | LASARTE ORIA |
| 241 | HECTOR AGUDO MARTEACHE | 0:58:11 | USURBIL |
| 242 | JOSE MARI ALKORTA LIZASO | 0:58:22 | BILLABONA |
| 243 | IMANOL ELDUAIEN UGARTEMENDIA | 0:58:22 | TOLOSA |
| 244 | JULIA BEA ANTORANZ | 0:58:40 | OIARTZUN |
| 245 | AITOR GOÑI IRAZUSTA | 0:59:03 | DONOSTIA |
| 246 | AINARA LEUNDA URDANGARIN | 0:59:29 | DONOSTIA |
| 247 | IGOR LEUNDA | 0:59:30 | DONOSTIA |
| 248 | CARLOTA TELLO SANCHEZ | 1:00:10 | DONOSTIA |
| 249 | TOMAS IMAZ | 1:00:10 | ZUBIETA |
| 250 | ENRIQUE HERNANDEZ AZKONA | 1:00:29 | IRUN |
| 251 | ROSA ALVAREZ ASTABURUAGA | 1:03:13 | DONOSTIA |
| 252 | JORGE MANSO ESTEVEZ | 1:03:13 | ANDOAIN |

INFORMAZIOA: http://www.herrikrossa.com/clasificacion_baxurde.htm

# Usurbil Futbol Taldeak herritarren laguntza eskatu du

**Futbolaz gozatzeko aukera izatea, oztoporik gabe. Abian duten 2008-2009 kirol denboraldirako Usurbil Futbol Taldeko kideen nahia da hori. Lau talde arituko dira nor baino nor, lehia bizian. Lehen eta bigarren mailako Erregionaletako talde bana, emakumezko eta kadeteen mailako beste bi taldeekin batera. Baina lehian hasi baino lehen, arazo handi bati aurre egin beharko dio Usurbil FT taldeak: dirulaguntzak ez dira iristen eta gastuei aurre egiteko laguntza eskatu diete herritarrei.**



USURBIL FT-K AURREKONTUA OSATZEKO ARAZOAK DITU ETA LAGUNTZA PREMIAN DA.

Aldaketekin ekin diote kirol urteari, zuzendaritza talde berria osatu baita. Baina baita oztopoekin ere; orain arteko diru-iturririk gabe baitaude. Erreala eta Gipuzkoako Futbol Federaziotik jasotzen zuten laguntza etenda dago.

**USURBIL FT**

"Errealaren egoera dela eta, ez dugu dirulaguntza hori jasoko aurten"

Zuzendaritza talde berriak ohar bidez jakinarazi duenez, "Errealaren egoera dela eta ez dugu diru hori jasoko, eta futbol federazioak bere egoitza berrian eginiko gastuak direla eta, ez dute urteroko dirulaguntza emango".

### Babesleei eskerrak

Egoera zein den aintzakotzat hartuta, futbol taldekoek usurbildarren aldeko apustua egiten dute. "Usurbilgo herriak eman dezakeen laguntza ezinbestekoa izango da", adierazten dute. Orain arte lan horretan, dirua emanez futbol taldea babesten aritu diren enpresei eskerrak eman nahi dizkiete kirol taldeko ordezkariek. Modu berean, ohar bidez zehazten dutenez, baita "bordatez gure futbol taldeetan diharduten entrenatzaile eta laguntzaile guztiei".

### Bazkidetza kanpaina

Momentuz, egoera ekonomikoa indartzeko bi egitasmo dituzte esku artean; jada abian duten publizitate kanpaina eta laster martxan jartzeko asmoa duten bazkide kanpaina. Bestalde, kirol taldetik adierazi dutenez, Harane futbol zelaiko taberna irekitzeko lanean ari dira.

Futbol taldekoei laguntza eskaini edo aholkurik eman nahi duenak honako helbide elektronikora idatzi dezake: futusurbil@yahoo.com

## KzGunea, ikastaroak

**Sinadura elektronikoa**
Irailak 26, 18:00-20:00

**Sinadura elektronikoa**
Irailak 29, 16:00-18:00

**Kontsumitzailea sarean**
Urriak 1, 16:00-18:00

**Irailean, arratsaldez.** 16:00-20:00.
Kale Nagusia, 37. Tf: 943 36 14 12.

## Eguneko goardiako farmaziak

**Irailak 25, osteguna**
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

**Irailak 26, ostirala**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

**Irailak 27, larunbata**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

**Irailak 28, igandea**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

**Irailak 29, astelehena**
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

**Irailak 30, asteartea**
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

**Urriak 1, asteazkena**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

**Urriak 2, osteguna**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Urriak 3, ostirala**
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

**Urriak 4, larunbata**
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

**Urriak 5, igandea**
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

*GOARDIAKO FARMAZIA,GAUEZ*
***Correa Farmazia** (22:00-09:00), Perkaiztegi kalea, 8 Hernani 943 33 60 22*
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

## Larunbat gauetan, autobus zerbitzu bereziak

Irailaren 20tik aurrera, Zumaia eta Donostia arteko larunbat gaueko autobus zerbitzua jarriko da martxan. Egun horretatik aurrera, larunbatero, Zumaiatik Donostiara doazen autobusak ordu honetan pasako dira Usurbildik: 23:35ean, 01:35ean, 03:35ean eta 05:35ean.

Aurkako noranzkoan, Donostiatik Zumaiara, autobusak Donostiatik ordu honetan aterako dira: 00:00etan, 02:00etan, 04:00etan eta 06:00etan (Usurbilen ere geldituko da).

Informazio gehiago, 902 543 210/ www.euskotren.es.

## Agenda !!

### Irailak 25 osteguna

**Erraustegiaren ondorioak gure baserrietan**, hitzaldia. Hizlaria: Peio Lozano. 19:30ean Sutegin. Antolatzailea: Alkartasuna Kooperatiba.

### Irailak 26 ostirala

**Bertso-afaria Xabier Amuriza eta Joxe Agirrerekin**. 21:00etan Olarrondo jatetxean. Antolatzailea: Nafartarrak.

### Irailak 27 larunbata

**Morena Son** Kubako taldea frontoian. 20:00etan.

### Irailak 28 igandea

**Magia Teilatuetan** antzerkia. 17:30ean, Sutegin. 5 urtetik gorako haurrentzat. Sarrera doan. Antolatzaileak: Kutxa, Udala.

### 1951ko kinto afaria

Urriaren 18an larunbata, 1951 urtean jaiotako kintoak bilduko dira afari baten inguruan. Sekaña erretegian elkartuko dira. Izen eman nahi duenak, Sekaña erretegira deitu dezala, telefono zenbaki honetara: 943 362 773.

# Morena Son kubatar taldearen kontzertua frontoian izango da

**Kubako doinu tradizionalak eskaintzen ditu Morena Son taldeak. Beraz, irailaren 27an frontoian eskainiko duten kantaldian, Kubarekin harremanatzen ditugun kantu ezagun horietako batzuk eskainiko dituzte.**

Aimeé Campos musikari eta kantariaren zuzendaritzapean osatu zen Morena Son taldea 1998an. Ordutik hona, emanaldi askotan hartu dute parte, Kuban bertan eta baita Kubatik kanpo ere. Aipatzekoa da Morena Son taldeko partaide denak emakumeak direla. Uda honetan, ExpoZaragozan aritu dira zuzenean.



ExpoZaragozan aritu dira uda honetan kantuan. Larunbat honetan, frontoian izango dira.

Inguruan direla aprobetxatuz, frontoian arituko dira datorren larunbatean, arratsaldeko 20:00etan hasiko den kantaldian.

### Bertso-afaria Olarrondon

Xabier Amuriza eta Joxe Agirre izango dira ostiral honetako bertso-afaria girotuko dutenak. Menua, aldiz, hauxe: entsalada epela, bakailoa konfitatua piparrekin, idi-txuleta, gazta tarta, kafea, kopa eta purua. Edateko, sagardoa eta ardoa aukeran.

Nafartarrak taldeak antolatu du irailaren 26ko bertso-saioa, baina txartelak erosteko azken eguna irailaren 22a izan zen.

### Gure Pakearen bazkaria

Aurten 80 urte betetzen dituzten bazkideen omenez, bazkaria antolatu du Gure Pakeak. Lehen lehenik, meza izango da parrokian, 11.30ean eta euskaraz, eta ondoren bazkaria Atxegan, arratsaldeko 14:00etan. Bazkarira joan nahi dutenek, txartela erosi beharko dute aldez aurretik, 35eur otan, Gure Pakea egoitzako bulegoan. **Irailaren 26an amaituko da txartela eskuratzeko epea.**

# Ostiral honetan, larrialdi planei buruzko hitzaldia Sutegin

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza, indarrean den legedia betez, zabalkunde-kanpaina egiten ari da Euskal Autonomia Erkidegoan, uztailaren 16ko 1254/99 Errege Dekretuak eragiten dien enpresa kimikoen Kanpoko Larrialdietako Planak ezagutarazteko.

Gure herriari dagokionez, Igepak enpresa kimikoari soilik eragiten dio aipatu dekretuak.

Ostiral honetan, arratsaldeko 19:00etan, Sutegi kultur etxean, enpresa honetan eman daitezkeen larrialdiak, honek herritarrengan sor dezakeen eragina, ezartzen zaizkion neurri zuzentzaileak eta abar argitzeko aukera izango da.

Mahai-ingurua, Eusko Jaurlaritzako, Igepak enpresako eta udaleko ordezkariek osatuko dute.

Udaletxetik adierazi dutenez, “interesgarria iruditzen zaigu zu bertaratzea, enpresaren gertutasuna kontuan izanik dituzun zalantzak argitzeko”.



Larrialdien dekretu berriak Igepak enpresari eragiten dio.

**Hitzaldia:** irailak 26 ostirala, arratsaleko 19:00etan Sutegin.

### ETXEBIZITZA

- Usurbildar gazte bat alokairuan dagoen etxe baten bila, Usurbilen. Tf: 652 750 789.
- Etxe bat alokatu nahiko nuke ahal bada Usurbilen edo inguruan, bakarrik edo konpartitzeko. 620431108.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berritua eta amueblatua. 49.800.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
-Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 220.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukaldea, egongela eta trasteroarekin. 685731792.

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Citroen Saxo diesela daukat salgai. Matrikula SS-BC da. 656734413 (Marijo).
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
-Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajean egondakoa. 620625823.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaintzak

- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00era edo bestela kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Kamarera bat behar da, Antxeta tabernan lan egiteko barran, esperientziarekin. Astelehenetik ostiralera lan egiteko. 943 37 03 44.
- Neska euskaldun bat behar da Usurbilgo Kinkildegian lan egiteko. Interesatuak deitu 609099824 / 943214508 telefonora.
-Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 679062726 / 943575788
-Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 661702708 / 943575788
-Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Ordutegian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.

#### Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko goizeko 7:30etik goizeko 9:30/10:00ak arte. Umeak zaindu edota ikastolara eramateko, astelehenetik ostiralera. 647 742 893.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Garbiketan, gaixoak zaintzen... edo bestelako lanetan. 608 00 54 06.
- Lan bila nabil. 608 83 50 33.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperiantziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- 18 urteko neska usurbildar bat eskaintzen da uztailean goizez edo arratsaldez haurrak zaintzeko. 621626500
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 366 710.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

-Yorkshire terrier arrazako txakur bat galdu zaigu. Bilatuz gero deitu zenbaki honetara: 609 653 440. Txakurra itzultzen duena saritua izango da.
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Bakarkako haur ohe bat salgai koltxoi eta guzti. Tamaina: 90 x 1,90. Oso gutxi erabilia eta polita. Interesdunek: 629 730 299.
- Arropadenda batetarako altzariak eta mostradore bat saltzen da merke. 943 363 448.
- Betaurreko batzuk galdu genituen ekainaren 20an, arratsaldean, Ardi Beltz garagardotegi parean. Aurkitu badituzu: 943 370 249.
- Txandal baten jertsea galdu da, urdin argia eta Adidas markakoa. 10 urteko ume baten tamainakoa. 943 37 68 97.
- Belarra mozteko eta fardoak egiteko zerbitzua. Tel: 607457004 Dani.
- 1,5 metroko somierra eta koltxoia salgai. 943 36 65 89 telefono zenbakian.
- Usurbilen edo inguruan belardiak behar dira belarra ontzeko. 607 45 70 04. 943 36 60 40. Dani.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberrian umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Kotxeko aulkitxoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Aritz egurrezko aulkiak salgai. 943 36 20 49.
- 2. eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



**Zorionak, Unax eta Oihan!**
6 eta 4 urte horiek ospatzeko, bixkotxo goxo goxoa jango dugu. Muxu handi bat, June, Anje eta Aratzen partetik.

**Oharra:** *Jaiotzak*, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan telefono zenbaki honetara: 943 360 321. E-posta: erredakzioa@noaua.com








ALKARTASUNA
100
URTE
Sagar urtea da,
egin zure sagardoa!
ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK


EUSKAL HERRIA
Basatia
NATURAREN GIDALIBURU NAGUSIA
Eskura ezazu
berriarekin
berria
KARPETA
OPARI!
IRAILAK 27
LEHENA DOAN!
6 liburuki
Itsasertza, Basoak eta ibarrak, Labarrak eta
haitzarteak, Tontor nagusiak, Ibaiak eta ur-jauziak
eta Euskal Herriko Atlasa
berria
GIPUZKOA
kutxa

JOSE AZPURUA UNANUE
TEILATUAK • FATXADAK
Obaba kalea 29. Asteasu
943 69 68 52
620 800 186

URDAINTZI S.L.
igeltseritza
943 367 264
649 435 475
649 435 476

Errazkin S.L
igeltseritza orokorra
943 372 679
649 435 470
Kale nagusia 47, behea A

Josue Aranzazistroki
943 360 550
606 372 105
Juan Jose enea 1. Ikaztegieta

XUKIN
igeltseritza orokorra
663 087 671
Erreka Txiki 6. 1B

Antonio Urruzola
Tel: 943 376 415
Faxa: 943 360 510
Asteasuain Industrialdea, 3

BEREZIARTUA S.L.
egurra eta egur-aluminiozko leihoak - eskailerak
Aginaga 943 371 571

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Imanol
Tel. 943 362 664
Faxa 943 374 002
Barren Etxe Kalea
ZUBIETA

Bainu eta sukalde erreformak, gasa, berokuntza,...
Josetxo Ikatzeta
687 951 225

Lataillade
gasa, berogintza klimatizazioak eta mantenimendua
609 888 021

Rafa
iturgindegia
Bainuko altzariak
Manparak...
943 368 004
Bordaberri kalea 1,

JOSEBA ARANGUREN
943 830 072
659 883 912

Javier Orbegozo
Gasa-berokuntza
659 602 789
Erreka txiki 13, 3.esk

FERNANDO PINTURAK
enpapelaketak
lurzoruak...
943 366 019

izAgirre
Apdo. 37

ARGILAN
Jose Luis Borda Zugasti
industria instalazioak konponketak
943 361 380
629 272 859
Borda berri 5 behea

# ofizioen gida

IGELTSERITZA
AROZTEGIAK
ITURGINTZA
PINTURAK
ELEKTRIZITATEA

Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noaua.com

N!!

# San Praixku Aginaga 08

*gehigarri berezia*



# Aurten bai?

## II. Trainerila Txapelketa irabazten saiatuko da Aginaga

**Iazko ekitaldi arrakastatsuena izan zen. Horregatik, aurtengo San Praixkutan bigarrenez ospatuko da Trainerila Txapelketa. Iaz Orio izan zen nagusi baina Aginagakoak etxerako nahi dute aurtengo bandera. Lortuko al dute?**

Iaz, Lehen Trainerila Txapelketan, errio izkinak jendez gainezka izan ziren. Giro paregabea eta ikuskizuna aparta. Aurten, Joxe Luis Kortak eta Ortzaikakoek ez dute parte hartuko baina Hondarribikoak hurbilduko dira Aginagako banderaren bila.

Hauek izango dira **San Praixku egunean** lehian arituko diren taldeak: **Aginaga, Usurbil, Orio, Pasai San Pedro, Pasai San Juan eta Hondarribia.** Arratsaldeko 17:30ean hasiko dira arraunean eta seguru ez dela zalapartarik faltako.



AGINAGAKO ORDEZKARIAK HAUEK IZAN ZIREN IAZKO TRAINERILA TXAPELKETAN.



**Irailak 28 igandea. Pilota Txapelketa, finalak.** Azken asteotan Aginagako Pilota Txapelketako partidak jokatu dira Aginagako frontoian. Kanporaketa saio desberdinen ondoren, amaierara heldu da txapelketa. Guztira, 29 bikotek hartu dute parte. Irailaren 28an jokatuko dira finalak, beraz, ikuskizuna ziurtatuta dago.



**Urriak 4 larunbata. Kontzertu paregabea.** San Praixku eguna behar bezala amaitzeko, kontzertu gau luze bat proposatzen dute Jai Batzordetik. Herriko talde bat, Mendeku Itxua. Eta harekin batera, Inser Show eta Betagarriren emanaldiak. Jai giroa eta parranda ziurtatua beraz, goizaldeko ordu txikiak arte.

# Herri kirol lehia estua

## Aginaga, Igeldo eta Zubieta aurrez aurre arituko dira

**Iaz, herritarren arteko lehia izan zen. Aurten, ordea, desafioka aritzeko aukera izango dute Aginagako neska-mutilek. Igeldo eta Zubietako ordezkariak izango dituzte aurrez aurre. Hitzordua, urriaren 5ean igandea, arratsaldeko 17:30ean.**

Argazkian ikus daitekeenez, jakinmin handia piztu zuen iazko herri kirol saioak. Aurten, Igeldotik eta Zubietatik ere etorriko dira lehiatzera. Urriaren 5eko saioan, lau talde arituko dira: Aginaga A, Aginaga B, Igeldo eta Zubieta.

**Plater tiraketa, goizez**

Urriaren 5ean, goizez, plater tiraketa saioa antolatu dute Aginagan. 9:00etan hasiko dira lehian.



LAU TALDE HAUEK ARITUKO DIRA HERRI KIROLETAN: AGINGAGA A, AGINAGA B, IGELDO ETA ZUBIETA.



**Urriak 10 ostirala. Umeen Eguna.**
Aginagako haurrek izango dute merezitako tartea aurtengo San Praixkuetan. Goizean jolasak eta eguerdian amek prestatutako bazkaria. Pailazoak, txokolate gozoa eta buruhandiekin korrika saio ederrak arratsaldean. Haurrek eraman beharrekoa, parte hartzeko gogoa da, besterik ez.



**Urriak 11 larunbata. Oilasko Biltzaileen Eguna.**
Tradizioak aurten ere ez du hutsik egingo. Oilasko biltzera atera nahi duenak iratzargailua goizean goiz jarri dezala. Eta seiretan behar bezala gosaldu, etxez etxez batetik bestera ibiltzeko egun luzea izango baitute aurretik. Gauean, herri-afaria. Txartelak betiko lekuetan salgai.

# Alejandro Tapiaren omenez

## Eskultura bat ipiniko dute Aginagako plazan

**San Praixku jaiak bukatu eta gero, Alejandro Tapia margolariak bere bizilagunen omenaldia jasoko du. Urriaren 19an igandea, herri bazkaria egingo da frontoian. Egun horretan bertan, "Gordeta ditudanak" erakusketa zabalduko da Eliza Zaharrean.**

**Ibilbide luzea osatu duen margolaria da Alejandro Tapia. 1961ean Donostian lehen erakusketa egin zuenetik hona, bilakaera etengabea izan du Aginagako margolariak. Urte hauetan guztietan egindako lanak bilduko dira "Gordeta ditudanak" izeneko erakusketan, urriaren 19tik aurrera Aginagako Eliza Zaharrean. Egun horretan, bide batez, bizilagunen omenaldia jasoko du Tapiak.**

Gaztetan, Parisen eta Madrilen ibili zen eta bertako arte mugimendua ezagutzeko aukera izan zuen. 1964an, Ur taldea osatu zuen Javier Arozena, Carlos Bizkarrondo eta Jose Grazenearekin batera.

Gerora, erakusketa ugari eta hainbat sari jaso ditu Aginagako margolariak.

### Herri bazkaria

Urriaren 19an, omenaldia eskainiko zaion egun berean, herri bazkaria egingo da frontoian. Laster jarriko dituzte bazkarirako txartelak salgai. Bazkalosteko ekitaldian jasoko du Aginagako margolariak bere bizilagunen babesa.

Alejandro Tapia margolariak 77 urte ditu gaur egun eta bere ibilbidean osatu dituen hainbat obra bildu ditu "Gordeta ditudanak" erakusketan, urriaren 19an hasi eta azaroaren 9ra arte zabalik izango den erakusketan.

### Udalaren laguntza

Antxomolantxa elkarteak antolatu du Alejandro Tapiaren omenaldia. Usurbilgo Udalaren dirulaguntzari esker, eskultura ere ipiniko dute Aginagako plazan.



"GORDETA DITUDANAK"; HALA DU IZENA AGINAGAKO ELIZA ZAHARREAN ZABALDUKO DUEN ERAKUSKETAK.

Urriaren 19ko omenaldia Aginagako Antxomolantxa elkarteak prestatu du. Herri bazkariaren ondoren hasiko da ekitaldia. Baina hori baino lehen, Alejandro Tapiaren omenez egindako eskultura inauguratuko da Aginagako plazan.

### Erakusketa Eliza Zaharrean

Eguerdiko 12:30ean eskultura inauguratu eta, jarraian, Tapiaren margoekin osatutako erakusketa zabalduko da Eliza Zaharrean.

"Gordeta ditudanak" izeneko erakusketa azaroaren 9ra arte egongo da zabalik. Astelehen eta asteartetan itxita egongo da. Baina asteazkenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara



irekita izango da.

Larunbatetan, goizez 10:00etatik 14:00etara eta, arratsaldez, 18:00etatik 20:00etara. Eta igandetan, goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 18:00etatik 20:00etara.


Angulas Mayoz, s.l.
AGINAGAKO ANGULAK
BEREZKO BIBEROAK
Toki Berri, z/g
Telf: 943 36 15 94
Faxa: 943 36 25 73
AGINAGA
ONDO PASA SAN PRAIXKUAK!


José María Larburu
Garraiatzailea
garraioak
larburu
gruarekin ere egiten dugu lan
ondo pasa jaietan!
Larzusta z/g. AGINAGA
943 36 17 35 · 656 791 277


TXAPARTEGI
harategia
HARATEGIA
bertako haragia
ondo pasa jaietan!
AGINAGA · 943 361 907


ondo pasa jaietan!
URDAIRA
Sagardotegia
Sagardo naturala
Aginaga
943 37 26 91
630 777 346

IRAILAK 28 - URRIAK 12

# San Praixku 08

### IRAILAK 28 IGANDEA

**10:00: Aginagako VI. Pilota Txapelketako finalak.** Eskuz nahiz palaz.

### URRIAK 3 OSTIRALA

**19:00: Jaiei hasiera** etxefero eta buruhandiekin. Ondoren, herri poteoa eta txosnen irekitzea. Animatu denak poteora!
**21:00: Gazte afaria** soziedadean.
**23:00: Egan** taldearekin dantzaldi bikaina.

### URRIAK 4 LARUNBATA, SAN PRAIXKU EGUNA

**11:00: Meza nagusia,** bi bertsolariz alaitua.
Jarraian, herriko jubilatuentzat **itzelezko hamaiketakoa** izango da Aginaga sagardotegian.
**17:30ak aldera: II. Trainerila Txapelketa.**
Partehartzaileak: Aginaga, Usurbil, Orio, Pasai San Pedro, Pasai San Juan, Hondarribi.
Aurten Aginagak bandera baietz!!!!!
**23:30:** Kontzertu paregabea: **Mendeku Itxua, Betagarri, Inser Show.**

### URRIAK 5 IGANDEA

**9:00: Plater tiraketa.**
**17:30: Herritarren arteko herri kirolak,** herri arteko lehia ikusgai!
Partehartzaileak: Aginaga A, Aginaga B, Igeldo, Zubieta.
**19:00: Bertsolariak.**

### URRIAK 10 OSTIRALA UMEEN EGUNA

**10:00: Haurren jolasei hasiera** emango zaie. Gogotsu etorri!
**13:30: Herriko aitatxo-amatxoen eskutik, makarroi eta oilasko goxo-goxoak** haur guztientzat.
Bazkalostean, jolasen jarraipena eta sari banaketa.



**17:30: Txirri Mirri eta Txiribiton Junior pailazoak.**
Ondoren, txokolatada eta buruhandi bixkor bixkorrak!!! Haurrak prestatu korrika egiteko!!!!
**23:00:** Ez da girorik faltako **Trakets** taldearen dantzaldian.

### URRIAK 11 LARUNBATA OILASKO BILTZAILEEN EGUNA

**6:00: Oilasko biltzaileen gosaria.**
**15:00ak aldera: Oilasko biltzaileen itzulera.**



**16:00: XXVIII. Mus Txapelketa Herrikoia.** (Izen ematea 15:30etatik aurrera).
**21:00: Herri afaria.** (Txartelak betiko lekuan salgai). Jarraian, **Tximeleta** taldearekin dantzaldia.
**Ondoren, Larra Dj-arekin goizaldera arte** musika ezberdinaz gozatzeko aukera Aginagako Eliza Zaharrean.

### URRIAK 12 IGANDEA

**17:30: Herri Kirolak.**
Jarraian, **sardin eta sagardo dastaketa.**
Aldi berean, XXVI. **Toka Txapelketa** herri mailan.

ETXEBESTE
Jatetxea

Eguneko
bazkariak

ondo ibili jaietan !!

943 36 27 40

ATXEGA
Arrainak eta Itsaskiak

Ondo pasa
San Praixkuak!!

Mutiozabal Etxea, 17 zenb.
20170 AGINAGA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 361 081
Faxa: 943 365 704
www.atxega.com
atxega@atxega.com

Aginaga
Sagardotegia

Urte osoan txotxetik





Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com

ANGULAS Y MARISCOS
A. BRUÑO E HIJOS, S.L.

# A. Bruño e Hijos S.L.

ondo pasa San Praixkuak!

**ANGULAK ETA ITSASKIAK**
Menu ezberdinetako
aurrekontuak egiten ditugu.

Egin ezazu zure eskaera telefonoz:
✆ 943 37 27 88 Usurbil
Legarde Kaleko Zumartegi.



Ganbak, langostinoak, karrakelak,
nekora, lanpernak, buia, zentoiloa,
mixera, kamaroiak, olagarroa, ardo txuria.

65€

# ANGULAS MANTEROLA





**San Praixku jai zoriontsuak opa dizkizuegu aginagar guztioi!**

Telf: 943 36 07 77 Faxa: 943 36 35 85
Aginaga